

MARIA ELENA LETE GARCIA Bergarako Udaleko Alkateak emandako

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2018-KALD-000007-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Guzti hori ikusita eta arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea onartzea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0210.622.920.00.01 2018	ARRETA BULEGOA	200.000,00	80.000,00	280.000,00
GUZTIRA		200.000,00	80.000,00	280.000,00

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0101.870.010.00.01 2018	Diruzaintz. Gerak. garbia - Gastu Orokor	80.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			80.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Hau da Alkate andreak agindu eta sinatu duena, Bergaran, bi mila eta hemezortziko uztailaren hogeian, eta nik, Idazkariak, ziurtatua.

